

2009ko otsaila
azterketa eredua: **S**

EUSKARA
C1 azterketa



Azterketa idatziak hiru atal ditu :

<u>Azterketa-atalak :</u>	<u>Denbora</u>	<u>Gehieneko puntuazioa</u>	<u>Gaiztuzko</u>
A atala: Testu idatzien ulermena	85´	30	20
B atala: Entzundakoaren ulermena	50´	30	20
C atala: Idatzizko adierazpena	90´	30	20

- A eta B atalen ostean eten bat egingo da
- Atal bakoitza baztertzaila da, guztiak gaiztatu behar dira mintzamen proba egin ahal izateko.

A eta B atalen erantzun orria

Izena: Abizenak:

N. A. zenbakia: -

Telefona:

Erantzunak orrialde honetan markatu behar dituzu. Adibidea: a b c

A atala: testu idatzien ulermena

01. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	02. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	03. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	04. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	05. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	06. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
07. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	08. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	09. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	10. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	11. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	12. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
13. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	14. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	15. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	16. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	17. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	18. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
19. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	20. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	21. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	22. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	23. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	24. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
25. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	26. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	27. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	28. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	29. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	30. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c

B atala: entzundakoaren ulermena

31. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	32. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	33. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	34. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	35. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	36. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
37. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	38. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	39. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	40. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	41. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	42. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
43. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	44. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	45. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	46. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	47. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	48. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
49. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	50. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c				

A atala: testu idatzien ulermena

1. ARIKETA

Hurrengo testu zati bakoitzari buruz ulermen galdera batzuk dituzu. Hiru aukeren artean erabaki zein den testuaren esanahiarekin ondoen egokitzen dena.

6 item

(6 puntu)

Azalaren kolorea

Amets Arzallus, Argia.

Animaliek kamuflatzeko erabiltzen dute, eta pertsonak salatu egiten ditu. Azalaren koloreak. Olagarroa arroka bilakarazten du, eta marokoarra itsaso. Azalaren koloreak. Eta zuk itsasoa zeharkatu baldin baduzu, bueltan zatozenean, ez duzu esan beharrik non izan zaren. Azala kolorez aldatu zaizu, eta berak bakarrik hitz egiten du: "Jesus neska, kubatarrentzat ere utziko zenuen ba eguzki pixka bat!", edo, "hori da hori Patagonia kolorea! Elurra soinean dakarzu!". Jantzi-erantzian dabil azala zure gorputzean, eta joandako lekura egin egingo zaizu. Kameleoia zara zu. La Pazen ez dut kameleoirik ikusi, eta handik itzuli naizenean, ez du inork nire soinean La Paz ikusi. Baina azaleko kontua da hori. Mamia beste nonbait dago. Bolivian ikasi dut, herri batera egin nahi duenak, azala dela azkena aldatu behar duena.

1. Azalaren kolorea...

- a) *itsasoaz bestaldetik bueltan gatozenean non izan garen ez esateko bide bat da.*
- b) *goazen tokira goazela moldatu ohi zaigu.*
- c) *janzten dugun bezalaxe erantzten dugu.*

2. Zer ikasita itzuli da Amets Arzallus Boliviatik?

- a) *Azala aldatuko zaigula, baina mamia beste nonbait dagoela.*
- b) *Nonbaitera ohitzeko geure barnea aldatzeko prest egon behar dugula.*
- c) *Kubatik eta Patagoniatik itzultzen denean ez bezala, inork ez diola hango kolorea duela esaten.*

Pausoa egiten da La Pazera aurrea. Hankak lurreraino iristen baitira han ere, baina oxigenoa ez da iristen bururaino. Arnasa ematen oso zuhurra da Boliviako atmosfera. Bestela hori ere lapurtua zuketzen honezkero kolonizatzaileek. Eta hauspoari buelta ezin emanik, pausoa geldotu duzu. Gelditu egin zara. Ikusi egin baituzu, miseria, espaloian eserita. Balantzaka ari da. Alkoholak bidera botatzen du, baina bideak ere ez du beretzat hartu nahi. Eskale zahar bat da. Lehen aldian begira gelditu zara, bigarren aldian erakutsi egin dizute, eta hirugarren aldian ez duzu ikusi. Egin zaizu begia La Pazera.

3. Arzallusek iradokitzen du La Pazen...

- a) *kolonizatzaileek nekez hartzen zutela arnasa.*
- b) *arnasa hartzeak lanak eman dizkiola.*
- c) *gelditu beharra dagoela miseria eta zuhurtzia ikusteko.*

Baina begia oso eginik ere argazki hura ikustean pausoa gelditu zitzaidan. Emakume indigena bat zen, eskean ari. Limosna eskea azal koloreen arteko keinu jokoa da La Pazen: beltzak aurpegia, zuriak bizkarra, beltzak eskua, zuriak hanka. Irudi hartan biek berdina zuten azalaren kolorea, luzatutako eskuak, eta atzendutako begitarteak. Daukanak ematen ez duenean, ez daukana tentatu behar. Ederra da argazkia, gogorra, mina, baina badu gauza bat txarra. Gelditu egin zela momentu hartan, ez zuen handik aurrera gertatu zena ikusi. Nik bai.

4. Limosna eskatzea La Pazen...

- a) *beltzen tentazioa da.*
- b) *zuri-beltzen arteko lehiaketa da.*
- c) *azalaren kolorearen araberako zerbait da.*

Eskalea lurrian eseri zen, bi eskuak zerura batu, eta arren eta arren, emateko zerbait. Baina indigenak ez zion txanponik luzatu. Hasieran. Bukaeran ere ez. Zorte txarra, erori egin zitzaion, poltsikotik behera amildu, bi boliviano bat. Eta txanpona dantzan ibili zen galtzada-harri artean. Eskaleak azkar erantsi zion eskua, bestea ez zen makurtu ere egin altxatzera, galdutzat jo zuen. Gure etxeko sagarrondoaz oroitu nintzen. Zuhaitz inozoak, gure lurra non bukatzen den pentsatu ez, eta auzokoaren terrenora luzatzen ditu besoak gure sagar eta guzi. Aitak garbi esplikatu zidan sagar haiek norenak diren: airean dauden artean, gureak. Baina behin lurrera eroriz gero auzokoarenak bihurtzen omen dira.

5. Txanpona galtzada-harrian dantzan ikusi zuenean...

- a) *ez zuela berreskuratuko ikusi zuen jabeak.*
- b) *galdu egin zela pentsatu zuen jabeak.*
- c) *eskaleak hartu eta hau kale artean galtzen ikusi zuen jabeak.*

6. Zergatik oroitu da Amets Arzallus etxeko sagarrondoaz?

- a) *Berak bezala, hark ere lurra non bukatzen den ez dakielako.*
- b) *Bera bezain inozoa delako, txanpona galtzen ikusita.*
- c) *Txanponarekin gertatu dena sagarrekin gertatzen zelako.*

2. ARIKETA

Hurrengo testuan belztutako testu zatien esanahiari buruzko galderak dituzu. Hiru aukeren artean erabaki zein den testuaren esanahiarekin ondoen egokitzen dena. Kontuan izan testuingurua ere.

9 item

(9 puntu)

La lutte finale (pasartea)

Joxean Agirre. Elkar, 2008.

Adiskide baten zain nengoen aireportuko harrera-areto nagusian, hegazkinen ordutegiaren panelari begira, norbaitek atzetik eskuekin begiak estali zizkidanean. Emakume ezagunen bat izango zela pentsatu nuen. Batzuetan adeitsu eta maitekor jartzen dira beste norbaitekin maitemintzen direnean. Haren esku luzeak ukitzen ari nintzen, izenik eman gabe nolana ere, ez bainuen hankarik sartu nahi, zerbait beroa eta **(7) lirdinga** sentitu nuenean: mingainarekin **(8) gingila miazkatzen zidan**, nik ulertzen ez nuen hizkuntza batean **(9) lizunak ziruditen hitzak** errepikatzen zizkidan bitartean. Haren eskuak askatu eta begiak irekitzea lortu nuenerako, ingurukoak begira nituen hunkiturik, hunkigarriak izaten baitira betiere geltoki eta aireportuetan ematen diren bikoteen arteko besarkada itogarri eta luze horiek. Goitik behera beltzez jantzia zetorren, horrek pitin bat bere gaztetasuna itzaltzen zion, baina **(10) ile horia anabasa batean bildurik zeraman kokotean eta horrek, ilearen desgobernu horrek alegia, ez dakit zergatik, biluziago egiten zuela iruditu zitzaidan**. Ni ez nintzela berak uste zuena adierazten saiatua nintzen, baina alfer samarrik, esaldi sakon eta katramilatsuak ateratzen baitzaizkit atzerriko hizkuntza batean hasten naizenean. **(11) Biolin baten estutxea zekarren esku batean eta tamaina bertsuko maleta bat zuen aldean**. Bigarren hau lurretik hartu eta kanpora lagunduko niola egin nion keinu buruarekin. Atetik irten bezain pronto, egoera behingoz argitzeko asmoarekin, maleta lurrean utzi nuenean ere emakumeak niri besarkaturik jarraitzen zuen,

(7) lirdinga

Zein da hitzaren esanahia?

- a) Kirasduna
- b) Lehorra
- c) Likatsua.

(8) gingila miazkatzen zidan

Non miazkatu zuen?

- a) Belarrian
- b) Kokotsean
- c) Lepoan

(9) lizunak ziruditen hitzak

Beraz, ematen zuen hitzok...

- a) beste hizkuntz arraro batean ahoskatuak zirela.
- b) irainak zirela.
- c) konnotazio sexuala zutela.

(10) ile horia anabasa batean bildurik zeraman kokotean eta horrek, ilearen desgobernu horrek alegia, ez dakit zergatik, biluziago egiten zuela iruditu zitzaidan

Hau da:

- a) Ile horia eta orrazkera zabarra zuen.
- b) Ilea zehaztasun handiz orraztuta zeukan.
- c) Motots apainak lepoa agerian uzten zion.

(11) Biolin baten estutxea zekarren esku batean eta tamaina bertsuko maleta bat zuen aldean.

Hau da:

- a) Biolin-estutxea eskuan eta maleta doi bat handiagoa zuen aldean.
- b) Estutxea eskuan eta tamaina bereko maleta lepoan zituen.
- c) la neurri bereko biolin-estutxea eta maleta zituen aldean.

(12) hiruzpalau taxizale begira genituela, autoen atepak zabalik, begi-bistakoa baitzen bikote baten elkarretaratzea irudikatzen genuela, eta, ondorioz, presarren hotel bat edo gutxienez bakarrik egoteko lekuren bat beharko genuela. Ez zen, beraz, hura emakumeari argibideak eskatzen hasteko lekuri proposena eta lehendabizi zegoenari eman nion, halaber, norabait eramateko agindua. Autotik jaitsi ginenean bakarrik begiratu zidan luzaz, nigan beste norbait ikusiko balu bezala. Baina ez orduan ez gero, elkarrekin egin genituen hilabeteetan, argitu nahi izan zuen gaizki-ulerua. Bukaeran bakarrik, beste orkestra batera joateko prestatzen hasia zelarik, aipatu ohi zuen egun hori, baina aldiko bertsio ezberdin bat eman. Orkestrako lagunekin tarteka egiten genituen afalondo luzeetan gaia egokitu eta argibideak ematen hasten zelarik, gertatuarekin zerikusi gutxi zuten kontakizunak asmatu ohi zituen. **(13) Niri aldian aldiko bertsioa baieztatzea baizik ez zitzaidan geratzen. Gehienez ere xehetasunen bat erantsiko nion edo txikikeriaren bat zuzendu.** Aireportuan, maletaren zain eman zuen ordu laurdenean, ez omen nion begirik gainetik kendu. Hala kontatu ohi zuen berak. Orkestrako norbait izango nintzela pentsatu omen zuen eta, galdetzeko asmotan hurbildu zitzaidanean, ez omen nintzen gai izan bere galderari taxuz erantzuteko, besotik amultsuki heldu eta taxi baten bila atera omen nuen. Inoiz inongo orkestratan ez omen zuten horren adeitsu eta abegikor tratatu. Hori pentsatu omen zuen. Geroago, hiria erakutsi, alde zaharreko terraza batean solasean jardun eta hotel bat bilatzeko asmotan altxatu ginenean, gerritik heldu omen nion, hain irmo eta aldi berean hain **(14) txeratsu**, non biolin bat ere horrela sentituko zela pentsatu baitzuen, berak hainbeste miresten zituen jotzaileen eskuetan. Burutazio horrekin, jotzaile baten eskuetan biolina sentitzen zela pentsatuz alegia, egin omen zuen tarte bat, zeharkatu omen genuen kale bat, noiz askatuko nuen beldurrez, eta han bertan erabaki omen zuen nirekin geratuko zela. **(15) Elkarren ezaupideari buruzko bertsio bigun samar horren aurrean, entzuten geunden gizonezkook deseroso sentitu ohi ginen, baina baziren begiak kizkurto eta inbidiaz, amesti, begiratzen zioten emakumeak ere.**

(12) hiruzpalau taxizale begira genituela, autoen atepak zabalik, begi-bistakoa baitzen bikote baten elkarretaratzea irudikatzen genuela,...

Bestela esanda:

- Bakarrik egoteko lekuren bat behar genuen eta taxizaleak prest omen zeuden hara eramateko.*
- Taxizaleak begira genituen ezohiko elkarretaratze baten lekuko baitziren eta hotelen batera-edo eraman nahi gintuzten.*
- Begira genituen taxizaleen iritzian bakardade beharrean ginen bikotea bide ginen.*

(13) Niri aldian aldiko bertsioa baieztatzea baizik ez zitzaidan geratzen. Gehienez ere xehetasunen bat erantsiko nion edo txikikeriaren bat zuzendu.

Bestela esanda:

- Zuzenketaren bat gorabehera, ez nituen lantzean ematen zituen bertsio desberdinak gezurtatzen.*
- Xehetasunak eta txikikeriak zuzentzen nitzion beti.*
- Zertzeladarik ere ez nuen aldatzen haren aldian aldiko bertsioa baieztatzean.*

(14) txeratsu

Beste era batera esanda:

- Maitekiro*
- Malgukiro*
- Era sinesgarrian*

(15) Elkarren ezaupideari buruzko bertsio bigun samar horren aurrean, entzuten geunden gizonezkook deseroso sentitu ohi ginen, baina baziren begiak kizkurto eta inbidiaz, amesti, begiratzen zioten emakumeak ere.

Beheko zein esaldi da egia:

- Elkar ezagutu izanak emakumeei inbidiaz eta ameskeriaz jokarazten zien.*
- Elkar nola ezagutu genuen kontatzen zuten istorio haiek emakume batzuen bekaizkeria azalarazten zuten.*
- Elkarren arteko harremanez aritzen zenean emakume guztiek ametsetan bezala begiratzen zioten.*

3. ARIKETA

Cloze-testa: Hurrengo testuetako hutsuneak betetzeko ematen diren hiru aukeretatik esan zein den egokiena.

15 ítem

(15 puntu)

Tangak eta Levi'sak

Juan Luis Goikoetxea. Euskaldunaren anekdotak. Mendebalde Kultur Elkarte.

Frantziako gobernua kokoteko zuloraino dago, tangak, beloak eta buruko paineluak direla eta; arropa kontuetan, **(16)**, batzuek estali gura dutena, besteek erakutsi egin gura dutelako.

Tanga, berez, antzinako praka mota bat da, eta tanga **(17)** ibiltzen ziren Angolako Kimbundu tribuko biztanleak. Tanga berba nazioartekoa da gaur egun, baina berez, portugesezik hartua da, eta portugesez Angolako esklaboengandik. Levi'sek, **(18)**, gure entzuleek badakitenez, XIX. mendeko jostunaren izena daramate, Levi-Strauss-ena.

Ba, gure Jose Antoniok ere baditu buruminak arropak direla eta. Mutil **(19)** da, eta behin metro bikoa izanez gero, biluzik egonda tangek tapatuko lioketen partea ez da gure aitarien gerrikoak estaliko liokeen **(20)**. Horregatik,

tangak baino erosoago gertatzen zaizkio bakeroak, levi'sak.

Italian dihardu ikasten, eta orain hilabete egin zuen **(21)** bogada. Arropak –kolorezkoak nahiz zuriak– batera ipini ditu **(22)** palangana handi baten, eta jakina, zuriak gorriunez eta urdin unez bete zaizkio. Errealeko, Athleticeko, Alabeseko eta Osasunako kamisetak batera garbituta **(23)**.

Arropa garbitzen esperientzia txar hori eduki ondoren, praka bakeroak, behintzat, berriro ez garbitzea erabaki du. Orduan zer izan da kontua? Ba, bakerook, levi'sok hainbeste erabili dituenek – eta garbitu ez– Aste Santua heldu denean, prakok horma kontran utzi eta zer gertatuko?, ba, praka bakerook tente gelditu direla, zutunik horma kontran, ez tolestu, ez okertu barik. Laster dira Guggenheim-en.

16.

- a) antza
- b) horregatik
- c) beraz

17.

- a) hutsean
- b) bakarrean
- c) soilean

18.

- a) gainera
- b) halaber
- c) ostera

19.

- a) tantaia
- b) pagoa
- c) urkia

20.

- a) beste
- b) bezainbeste
- c) bestekoa

21.

- a) lehenengoz
- b) lehengo
- c) lehenen

22.

- a) xaboiari
- b) xaboietan
- c) xaboitan

23.

- a) legez
- b) moduan
- c) gisan

Lauaxetaren amesetak

Juan Luis Goikoetxea. Euskaldunaren anekdotak.

Nork ez daki gure artean, Lauaxeta idazle handia dena eta francotarrek fusilatu zutena, 1937an Gernikan harrapatuta, kazetari frantses batzuei bonbardatu osteko **(24)** erakusten zebilela?

Beharbada, **(25)**, ez dio inork ere gure entzuleari kontatu Gotzon Garatek dioskuna, zera, 1923an premonizio bat eduki zuela Lauaxetak –premonizioa da, ba, aurretik seinale bat, abisu bat edukitzea, **(26)** pasatuko den zeozerena-. Eta Lauaxetak premonizioa eduki zuen.

Lauaxetak eta Leon Lopetegik –jesuita ikasle zirela– eztabaida bizi-bizia izan zuten behin ikaskide erdaldun batzuekin, eta Lauaxetari, oso sentibera izanik, min handia **(27)** zion haserre horrek.

Gainera, Lauaxeta sasoi baten sonanbulua izan zen eta arrazoi horregatik Martikorena zeukan gela lagun ze, Martikorena hau nasaia eta

indartsua **(28)**, aproposa zen inoiz behar izanez gero, Lauaxeta sonanbuluari oratu eta eusteko.

Ba, Esteban Urkiaga, “Lauaxeta” –erdaldunekin eztabaida eduki osteko goizean– atea **(29)** jo eta Lopetegiren gelara sartu zen, gau hartako amets gaiztoak, haserreagatik edukikoak kontatzen: Amets egin zuela kontatu zion Lopetegiri gerra zibila hasi zela Pirinioetatik Cadizeraino eta euskaldunok ere sartzen ginela gerran, horixe izan zen Lauaxetaren ameseta-eta.

Eta, azkenik, dio Gotzon Garatek, idazten duela Lopetegik, urteak garrenean, Lauaxeta Gasteizen fusilatu zutenean gogoratu zela hamalau urte lehenago Lauaxetak berak izandako amets harekin, izan zuen abisuarekin, **(30)**, 14 urte lehenago eduki zuen etortzeko zen gerraren premonizioarekin.

24.

- a) *marraska*
- b) *triskantza*
- c) *higadura*

25.

- a) *baina*
- b) *halaber*
- c) *aitzitik*

26.

- a) *geroztik*
- b) *geroko*
- c) *geroagoetara*

27.

- a) *eragin*
- b) *sortu*
- c) *bultzatu*

28.

- a) *izanik*
- b) *izanez*
- c) *izanagatik*

29.

- a) *danba-danba*
- b) *kox-kox*
- c) *di-da*

30.

- a) *hau da*
- b) *noski*
- c) *adibidez*

B atala: entzundakoaren ulermena

4. ARIKETA

Audioa *BIRRITAN* entzungo duzu.

Ematen diren hiru aukeretatik esan zein datorren entzundakoarekin bat.

12 item

(18 puntu)

Euskadi Irratia, 2008-10-05 (10')

Garazi Hach Embarek Saharako egoeraz hizketan.

31- Saharaz hemen daukagun informazioa...

- a) eguneratu egin behar izan dugu.
- b) ingurukoek daukatena baino okerragoa da.
- c) neurri batean azalekoa da eta zaharkitua dago.

32- Dirua bidaltzearen arriskuez ohartarazten du, diru hori...

- a) bidean galtzen delako.
- b) familietara bideratzen delako.
- c) hango jendeak ez duelako ondo banatzen.

33- Saharako gaurko egoera ez du ongi ikusten Garazik:

- a) Marokok eta Espainiak ez dute bakerik sinatuko.
- b) nazioarteko erakundeek etsi egin dute eta ez dira gehiago bilduko.
- c) saharar askoren borrokarako grina apaldu egin da.

34- Garazik lanean dihardu...

- a) eskoletan umeei munduaren ikuskera zabaldu nahian.
- b) zenbait erakundetan umeen bizi baldintzak hobetzeko.
- c) zenbait GKEtan Sahararen alde.

35- Garazik jende nagusiari ematen dizkion azalpenak helburu bat dute:...

- a) edozein laguntza sistema egokia dela adieraztea.
- b) jende gehiago janari bilketan inplikatzeko.
- c) laguntzeko zenbait formularen egokitasunaz hausnartzea.

36- Garaziren neba gaztea(k)...

- a) berak baino hobeto ezagutzen du Saharako egoera.
- b) Euskal Herrian bizi da.
- c) Saharan bizi izan da luzaroan.

37- Hemengo umeengan...

- a) etxean ez baina eskolan desinformatu egiten direla ikusten da.
- b) gabeziak igartzen ditu gauzez duten informazioan.
- c) hezkuntza sistema indartsu baten bertuteak ikusten dira.

38- Laster sumatzen da ...umeen artean generazioen arteko komunikazio eza.

- a) hango eta hemengo
- b) hemengo
- c) Saharako

39- Zenbatetan joaten da kanpamenduetara?

- a) Ezinezko zaio urtean behin joatea.
- b) Gutxienez urtean behin.
- c) Nahi lukeen baino gutxiagotan.

40- Hango izaeraren ezaugarrietatik zer gordetzen du?

- a) Etxean bakarrik egon beharra.
- b) Jendearekin egon beharra.
- c) Telefonoz hitz egin beharra.

41- Hara doanean...

- a) bertakotu egiten da zentzu guztietan.
- b) ez du bertako ohituretara egokitzeko ahaleginik egiten.
- c) jakitun da hemengo kultur ezaugarriek berezi egiten dutela bera.

42- Sahararren *hassania* hizkuntzaren ezagutza...

- a) arabiar klasikoa ikasiz aberastu nahi luke.
- b) galdu egin du denboraren poderioz.
- c) sakona du.

5. ARIKETA

Audioa *BIRRITAN entzungo duzu.*

Ematen diren hiru aukeretatik esan zein datorren entzundakoarekin bat.

8 item

(12 puntu)

Info7 irratia (6')

Luzia Alvarezek fosforoa nola aurkitu zen kontatzen du.

43- Fosforoa...

- a) elementu gehienak baino lehenago aurkitu zen.
- b) ez da erraz nahasten beste elementuekin.
- c) ugaria da naturan.

44- Giza gorputzak fosfatoak behar ditu...

- a) arnas aparaturoko.
- b) giharrak indartzeko.
- c) zelulek arnas har dezaten.

45- Hennig Brand ikertzaile alemaniarrek fosforoa isolatu baino lehen...

- a) bazuen fosforoaren berri.
- b) filosofoen harriarekin nahastu zuen gernua.
- c) metal ez-nobleak urre bihurtzeko ahaleginean jardun zuen.

46- Hennig Brand-ek fosforoa aurkitzeko...

- a) gizakiaren gantza urtu zuen.
- b) jendearen txiza berotu zuen.
- c) lurrin distiratsua gorde zuen.

47- Esperimentuak hats nazkagarria eragiten omen zuen,...

- a) hala diote garaiko lekukoek.
- b) hala frogatu dute gaur egungo ikerketek.
- c) hala izango zela pentsa daiteke.

48- Lehen esperimentu horren ondoren Brand-ek...

- a) berehala zabaldu zuen bere aurkikuntza.
- b) kide gehiagoren laguntza izan zuen.
- c) urrea sortzeko ahaleginean jarraitu zuen.

49- Fosforoa isolatzeko hurrengo esperimentuetan Brand-ek...

- a) gatz fosforotsuenak baztertu zituen.
- b) gernuko fosforo guztia isolatu zuen.
- c) metodo eraginkorra erabili zuen.

50- Gaur egun fosforo purua ...

- a) fosfato izeneko mineraletatik lortzen da.
- b) hezurretatik ateratzen da.
- c) zuzenean lurretik erazten da.

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak

Izena: Abizenak:

N. A. zenbakia: -

Telefonia:

C atala: idatzizko adierazpena

6. ARIKETA

Ezkerreko zutabeen duzun testua berridatzita dago eskuinaldean, baina testu zati batzuk falta ditu. Jarri zeuk testuan zer falta den. Kontuan hartu MARRA BAKOITZEAN HITZ BAT falta duela.
10 item **(10 puntu)**

Hiesa ukatu

Koldo Aldabe, Berria 2008-10-01 (moldatua)

Baratxuria, limoia, erremolatxa eta olioak; irabiatu eta edan. Horixe zen orain arte Hegoafrikako Osasun Ministerioaren errezeta GIB birusari eta hiesari aurre egiteko. Orain arte, Thabo Mbekiren dimisioak Osasun ministroarena ekarri baitu. Lehendakari berriak, Kgalema Motlanthek, Barbara Hogan jarri du aurrekoaren lekuan.

Hogan da Hegoafrikan hiesaz aho-bizarrik gabe hitz egin duen politikari bakarra. Mbeki bera ere hiesa ukatzen dutenetako bat izan da. Haren agintaldian bi milioi hegoafrikar hil dira hiesaren ondorioz, eta horietatik gutxienez 300.000 bizirik egongo lirateke, Gobernuak sendagaiak eskuragarri jarri izan balitu.

Etorkizunean zer? Jacob Zuma da heldu den urtean egingo diren hauteskundeak irabazteko hautagai nagusia. Ez dago argi zein politika egingo duen, baina ez da asko espero behar GIB birusa ez hartzeko modurik onena sexu harremanen ostean dutxa on bat hartzea dela uste duen batengandik.

(0) galdera adibidea da

Baratxuria, limoia, erremolatxa eta olioak; irabiatu eta (0) edanez aurre egiten zion orain arte Hegoafrikako Osasun Ministerioak GIB birusari eta hiesari. Orain arte, Thabo Mbekiren dimisioak Osasun ministroarena ekarri baitu. Lehendakari berriak, Kgalema Motlanthek, Barbara Hogan jarri du aurrekoaren lekuan.

Hogan da Hegoafrikan hiesaz (1) _____ gabe hitz egin duen politikari bakarra. Mbeki bera ere hiesaren (2) _____ bat izan da. Haren agintaldian bi milioi hegoafrikar hil dira hiesaren ondorioz, eta horietatik gutxienez 300.000 bizirik (3) _____, Gobernuak sendagaiak eskuragarri jarri izan balitu.

Etorkizunean zer? Jacob Zumak ditu heldu den urtean egingo diren hauteskundeak irabazteko (4) _____. Ez dago argi zein politika egingo duen, baina ez da asko espero behar GIB birusa ez hartzeko sexu harremanen ostean dutxa on bat hartzea baino modu (5) _____ ez _____ uste duen batengandik.

Jaso

Koldo Aldabe, Berria, 2008-10-21 (moldataua)

Ez, ez da lehena izango, ezta azkena ere, eta kopuruz ere **ez da handiena izango**, baina Idiazabalgo *Jaso* enpresak 32 langile kaleratzeko erabili duen bidea **aurrekaria ezarriko du agian, eta horregatik da arriskutsua.**

Eraikuntzaren loraldian gainbalio (hitz horretaz oroitzen?) potoloak, zinez gizenak, dituzten honetan, dorre-garabien eskaria jaitsi denean, dirutza horretatik sosik ikusi ez dutenen eltzetik atera nahi ditu babak.

Eta aterako ditu, aterako dituenek, kaleratze kolektiboa beste edozein neurri baino askozaz garestiago irtengo zaiola **ikusten laguntzen** ez badiote.

Lantegiko beharginen greba deia ez da nahikoa izango, ordea. Inplikazio handiagoa beharko da, Eusko Jaurlaritzatik hasita; baina bereziki langile klaseak egin behar dio aurre, **egoera larria izan arte** itxaron gabe.

Jasoko langileen alde bakarrik ez -horrek ere mereziko luke-; baita krisiaren aterkipean beste askok *Jasoren* ereduari **ez jarraitzeko** ere.

Ez, ez da lehena izango, ezta azkena ere, eta kopuruz ere egongo da **(6)** _____, baina Idiazabalgo *Jaso* enpresak 32 langile kaleratzeko erabili duen bidea arriskutsua da aurrekaria ezar **(7)** _____.

Eraikuntzaren loraldian gainbalio (hitz horretaz oroitzen?) potoloak, zinez gizenak, eskuratu dituzten honetan, dorre-garabien eskaria jaitsi denean, dirutza horretatik sosik ikusi ez dutenen eltzetik atera nahi ditu babak.

Eta aterako ditu, aterako dituenek, kaleratze kolektiboa beste edozein neurri baino garestiago irtengo zaiola **(8)** _____ ez badiote.

Lantegiko beharginen greba deia ez da nahikoa izango, ordea. Inplikazio handiagoa beharko da, Eusko Jaurlaritzatik hasita; baina bereziki langile klaseak egin behar dio aurre, otsoari **(9)** _____ arte itxaron gabe.

Jasoko langileen alde bakarrik ez -horrek ere mereziko luke-; baita krisiaren aterkipean beste askok *Jasoren* ereduari jarrai ez **(10)** _____ ere.

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak

Idatzi goiko ariketaren erantzunak hemen.

(0) edanez

(1) _____

(2) _____

(3) _____

(4) _____

(5) _____ ez _____

(6) _____

(7) _____

(8) _____

(9) _____

(10) _____

Idazlanaren zirriborroa egiteko orria

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak